

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatetzaren urtarrilaren 24ko 15/2023 Ebazpena, zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak aisialdiko lekuetara joateko gidari eta guzti kontratatzeke dirulaguntzen deialdia egiten duena (Gautxori)

BDNS(Identif.): 672529

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/672529>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: (www.infosubvenciones.es)

Lehenengoa. Onuradunak

Udalerrian erroldatutako pertsonak izango dira onuradunak, baldin eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute eta Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean badituzte dirulaguntzaren behin betiko ebazpena eman arte. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru sarreretatik eratorritako zor oro hartuko da onura, gerorata, zatikatuta edo etenda dauden zorrak edo zehapenak izan ezik. Eginbehar hau tutoretza daukaten pertsonen ere aplikatzen zaie, adingabeak edo legez ezgaitutako pertsonen kasuan. Bi betebeharrak bere horretan jarraituko dute eskabideak ebatzi arte.

Bigarrena. Xedea

Diruz lagundu ahal izango da gaueko 23:00etatik goizeko 07:00etara Arabako Lurralde Historikoko edozein herritara joateko ibilgailu bat gidari eta guzti (zerbitzu publikoa edo enpresa pribatua) kontratatzeagatik sortzen den gastua.

Pertsona eta hileko, gehienez, 4 bidaiak/ibilbide lagunduko dira diruz.

Udalerriko herrietako batek izan beharko du bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga.

Gau berean egiten bada joan-etorria, bi bidaiatzat/ibilbidetzat hartuko da.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, horietako bati baino ez zaio diruz lagunduko kostua.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2022ko abuztuaren 17ko bilkuran onetsi eta urriaren 7ko 115/2022 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak egindako gastuaren ehuneko 40koak izango dira, aurrekontu partida agortu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskatzaileek eskabide bana aurkeztu beharko dute hilero, egindako bidaien/ibilbideen zerrendarekin.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Faktura edo fakturarekin pareka daitekeen tiketa, enpresarena, egindako ibilbidearen eguna, ordua eta jatorria eta helmuga jasotzen dituenak.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE